

FORO ERREGULARRAREN BILERA

Bilera telematikoa – 2020ko apirilaren 16a

Gai-zerrenda	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ongi etorria Foro Erregularrean lehen aldiz parte hartzen dutenei 2. 2018-2020 Planeko aurrerapenak bateratu 3. 2020-2024 Plan berriaren diseinu-proposamenaren gaineko ekarpenak
Iraupena	15:00 - 17:00

ERAKUNDEA	PERTSONA	BERTAN
Eusko Jaurlaritza	Luis Petrikorena - Gobernu Irekiaren zuzendaria eta Foro Erregularreko presidentea	BAI
Eusko Jaurlaritza	Javier Bikandi - Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	Lexuri Ugarte - Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Josu Bilbao – Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako zuzendaria	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Leyre Vitorica - Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako zuzendaria	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Goizeder Manotas – Zerbitzuetako eta Berrikuntzako zuzendaria	BAI
Bilboko Udala	Oihane Agirregoitia - Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako zinegotzi ordezkaria	BAI
Bilboko Udala	Amagoia Ibarondo - Kalitate eta Ebaluazio Kabineteko zuzendaria	BAI
Donostiako Udala	Manu Narváez – Lehendakari zuzendaria	EZIN izan da konektatu, arazo teknikoak direla medio
Gasteizko Udala	Borja Rodríguez – Herritarren Partaidetzako eta Gardentasuneko zinegotzi ordezkaria	EZ
Eudel		EZ
Innobasque	Gotzon Bernaola. - Berrikuntza Publikoko zuzendaria	BAI
Ibatuz	Antxon Gallego	EZ Ezin izan dute parte hartu
Mestiza elkarte	Ana Molina	BAI
Osoigo	Eneko Agirre	BAI
Bilboko Emakumeen Kontseilua	Arantza Otaolea - Foro Erregularreko presidentekidea	BAI
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Maialen Olabe - Presidentea	BAI
Sareen Sarea	Mikel Barturen - Koordinatzailea	BAI
Eusko Ikaskuntza	Arantza Cuesta - Zuzendaria	BAI
Unicef Euskadi	Elsa Fuente - Zuzendaria	BAI
AKE	Joseba Terreros. - Presidentea:	EZ
Idazkaritza teknikoa	Koldobike Uriarte - proiektuaren arduradun teknikoa	BAI

	Goizalde Atxutegi - Innobasqueren proiektuen arduraduna	
--	---	--

1. ONGI ETORRIA FORO ERREGULARREAN LEHEN ALDIZ PARTE HARTZEN DUTENEI

Luis Petrikorenak eta Arantza Otaoleak, presidenteak eta presidentekideak, ongi etorria eman diete Eusko Ikaskuntzako Arantza Cuestari eta Unicef Euskadiko Elsa Fuenteri. Azken horiek eskerrak eman dituzte Foro Erregularrean parte hartzeko aukera emateagatik. Bi kide horiek, eta AKEko Joseba Terreros, parte hartzera gonbidatu dituzte sozietate zibilak ordezkariak handiagoa izan dezan Foro Erregularrean, [2019. urte amaieran aktibatu zen prozesua betez](#); beraz, hasierako parekotasuna gairiditu da, IRM taldearen gomendioei jarraituz. Talde horrek 2018-2020 Planaren diseinua ebaluatzean gomendatu zuen erakunde berriak sartzea, bileretan parekotasun hori eraginkorra izan dadin; izan ere, gizarte zibileko erakundeek parte-hartze irregularra izaten dute Foro Erregularrean bileretan, haien jardura nagusiarekiko partaidetza osagarria delako eta haien arteko koordinazio-gaitasuna txikiagoa delako. Foroan parte hartuz gero haien proposamen-gaitasuna handituko zelan azaldu zuen.

2. 2018-2020 PLANEN AURRERAPENAK BATERATU

Lehenbizi, adierazi da bilera bat egin dela OGPrekin, «alarma-egoera» bereziak Planaren garapenean zein eragin izan duen aztertzeko. Egoeraren elkarlan-dokumentu bat egiteko eskatu dute, eta bertan jasotzeko, batetik, plana amaitzeko dauden erronkak (oztopoak) eta, bestetik, egoera horren ondorioz lortutako aukerak edo ikaskuntzak, seguruena 2020-2024ko indarraldia izango duen plan berria egiteko orduan eragina izan dezaketenak.

Innobasqueko Gotzon Bernaolak azaldu du lankidetzarako talde batera deitu dutela, sozietate zibilak pandemia honen ondorioz egon daitezkeen ekimenei eta aukerei buruz dituen ideiak jasotzeko; administrazioek ere informazioa jasoko dutela adierazi diote, gainera.

Elkarlanerako dokumentua partekatzea erabaki da, horrela ekarpenak egin ahal izango direlako eta, aldizka, OGPrekin egin diren bileren gaineko, emaitzen gaineko edo prestatzen diren dokumentuen gaineko informazioa eman ahal izango delako.

Konpromisoek duten aurrerapen-mailari buruz, honako hauek azaldu dira:

K1 KONTUAK EMATEA – Hiru erakunde-mailek kontuak emateko prozesuan parte hartzea da helburua. Plataformaren alderdi funtzionala aurkeztu da, eta interes instituzionala jasotzeko prozesu bat ireki da maiatzaren erdialdera arte. Auditoretza soziala garatu gabe dago: informazio instituzionala irauli ondoren, herritarren interes handieneko arloen esku geratuko da.

K2 OPEN DATA – Herritarren interesen diagnostikoa egin zen, eta 27 datu-multzo identifikatu ziren garatu beharreko 4 zerbitzu potentzialesi lotuta (mugikortasun jasangarria, kirol eta bizitza osasungarria, kontuak ematea aurrekontuetan, dirulaguntzak eta hitzarmenak eta kultura- eta administrazio-agenda). Datu-multzo horiek administrazioan duten egoeraren diagnostikoa egin zen (gehienak ez zeuden irekita eta nazioarteko estandarren arabera normalizatzea falta zen). Normalizatzeko eta irekitzeko ahalegin handia ari da egiten, bai arduraren duen zeharkako organoaren maila teknikoan, bai open data kultura sortuz sektore-sailetan. Aurrez aurreko foro ireki bat egitea aurreikusita zegoen, sortu beharreko zerbitzu horiek elkarrekin diseinatzeko, baina badirudi ezin izango dela foroa aurrez aurre egin; online aurkitu beharko dira murriztaileagoak eta ez hain sortzaileak diren beste aukera batzuk.

K3 ILAB– Ilab-aren kontzeptualizazioa elkarlanean landu ondoren, proiektu pilotuen faseari ekin zitzaion, bi helbururekin: partaidetzan esperimentatzea eta komunitatera transferitu daitezkeen emaitzak lortzea. 2019ko bi proiektu pilotuek (aurrekontu parte-hartzaileak eta osasuna) beren lanak birbideratu dituzte online egiteko, baina oraindik ez dakigu zein den 2020ko proiektu pilotuetan izan den eragina (Thinking Fadura eta Rekalde). Nolanahi ere, Teklak enpresarekin ari gara lanean bi proiektu pilotuak eta [2019ko Elkarlan sari bi](#) transferitzeko (helburua, jardunbide egokiak instituzionalizatzea). Era berean, konpromisoa kanpoan ebaluatzen hasi da.

K4 OPEN ESKOLA– Proiektu pilotuak birbideratu dira, online prozesuarekin jarraitzeko. Añanako Open Eskolan prestakuntza-saio batzuk online egin dira eta parte-hartze handia izan dute. Tolosan, aldiz, proiektu pilotua martxan da; Bilbon balioespen eta barne-doikuntzako fasean dago.

K5 INTEGRITATEAREN SISTEMA– Konpromisoaren lehen mugarrak (mapaketa, ereduaren definizioa, etab.) dagoeneko prestatu dira. Osotasun eta gobernu oneko sistema baten garapenari emango zaio lehentasuna. Konpromisoa betetzeko beste hiru faseak martxan daude: 1/ Integritatean hezteko programa bat diseinatzeko ari dira (nola eraman gazteei) 2/ Arabako Foru Aldundiak eta Donostiako eta Ermuko udalek proiektu pilotuetan egindako aurrerapenak (hirurak ari dira horretan lanean eta maiatzaren 28an pilotu guztiekin batera saio bat egiteko asmoa dute) 3/ Paraleloki, plana barne-baliabideekin ebaluatzen ari da.

Era berean, jakinarazi da bi bideo egin direla **konpromisoak azaltzeko, bai eta OGP Euskadiri buruzko bideo orokor bat** ere.

Dokumentu honen eranskinean ikus daiteke zein informazio bidali den Foro Erregularrera, bilera egin aurretik; eta www.ogp.euskadi.eus webgunean aurrerapenak erakusten dira.

3. IRUZKINAK ETA EKARPENAK PLAN BERRIA DISEINATZEKO PROZESUARI

Jarraian, Foro Erregularrean parte hartzen duten gizarte zibileko pertsona eta erakundeen iritziak eta ekarpenak jasotzeko tarte bat ireki da:

2018-2020 Planaren ebaluazioa

- Ebaluazio-prozesuaren emaitzaz harago, erakundeek 2018-2020 Planari buruz zein gogobetetze-maila duten galdetu da. Idazkaritza teknikoak erantzun du lan neketsua izan dela; asko aurreratu dela erakundeen artean eta herritarrengan itxaropenak sortu direla. Lan horri esker, hitzemandako produktuak lortuko direla azaldu du. Era berean, ikusi da plana erronka handia dela eta, agian, bi urteko epea ez dela nahikoa izan mobilizatzeko, elkarrekin diseinatzeko, kontratatze eta abarrerako; beraz, hurrengo fasean exekuzio-epea luzatzea baloratuko da. Azkenik, 2018-2020 Planeko erakunde guztiak plan berriaren diseinuan parte hartzen ari direla nabarmendu du.
- Adierazi da konpromisoen kopuruak zaildu egin duela gizarte zibilak planean parte hartzea, eta konpromiso gutxiago dituen plan batek parte-hartze hori erraztu dezakeela, gizarte zibilak ez baitu administrazioen baliabiderik planaren jarraipenerako barne- eta kanpo-baliabideak bideratzeko. Horri dagokionez, erantzun dute plan berrirako proposamenean jasotakoaren arabera interesgarria izan litekeela konpromiso gutxiago garatzea eta planaren bertsio bakarra (herritarren bertsioa) izatea, haren hedapena eta jarraipena errazteko.

- Nabarmendu dute Foro Erregularrak pisua hartu duela planaren garapenak aurrera egin ahala; proposamenak egiteko gaitasuna hobetuz joan da, eta bi urte hauetan lankidetzan jardunenez, sozietate zibilaren arteko harremanak kohesionatu dira eta haren zeregina zein den ondo ulertu da.

2020-024 Plan berriaren diseinua

- **Parte-hartzea**

- Kezkagarria da aurrerantzean nola egingo den lan; izan ere, foro irekiak oso garrantzitsuak dira eta ez dakigu plan berria diseinatzeko egin ahal izango ote diren. Ildo horretan, Idazkaritza Teknikoak adierazi du ixteko eta irekitzeko epeak hasiera batean mantendu egingo direla, eta, beraz, aurrez aurreko prozesuak online formatuetara egokitzen joango direla. Ezin bada ekitaldi masiborik egin, planaren itxierako online eztabaida egin beharko da. Plan berriari dagokionez, deia egiteko eta proposamenekin laguntze lehen fasea maiatzean eta ekainean egin daiteke, online, lehen planean eraturako sare publiko-pribatuaren bidez. Helburua da erakundeartekotasunak zentzua izateari lotutako proposamenak biltzea (irekia baina egokia, itxaropen faltsurik sortu gabe). Proposamenak biltzeko formularioa aldi berean emango litzaieke erakundeei eta sozietateari, eta uda ostean, diseinua elkarrekin egiteko fase bati ekingo litzaioke, ideiak eta proposamenak lotzeko (ondorioz, urri eta azarorako utziko litzateke planaren prestaketa, lidergoen zehaztapena, eta bestelakoak). Sozietate zibilaren iritziz, oso garrantzitsua izango da zein kanal eta metodologia erabiliko diren erabakitzea, foro irekiak aurrez aurrekoa ez den formatu batera eramateko.
- Plan berria aukera bat izan daitekeela azpimarratu dute:
 - Alarma-egoeran mobilizatu/aktibatzen diren agenteak planaren eragile aktibo gisa sartzeko (*maker* mugimendua, enpresak, etab.). Egoera horrek erakutsi du gizarte gisa potentziala dugula, helburu komun bati eutsiz gero: ekimen berrien garapena, birbideratzen diren sektoreak, egokitze gaitasun handia, etab.
 - Ahotsa eta lekua emateko orain arte presentzia publikorik izan ez duten kolektiboak (haurrak, nerabeak eta gazteak)
 - Osasunarekin, datuekin eta abarrekin lotutako konpromisoak diseinatzeko.

Hain zuzen ere, OGPK gobernu irekiaren ikaskuntzari lotutako ikaskuntzak ere eskatu ditu, eta [Covid19ari aurre egiteko gobernu irekiaren ekintza instituzionalen zerrenda bat](#) egin da; Euskal Autonomia Erkidegoak horretan lagundu dugu.

- **Komunikazioa**

- Parte-hartzearekin lotuta, garrantzitsua da pentsatzea plan berriarekin nola iritsi publiko berrietara, pertsona eta erakunde berrietara. OGPrean eta haren konpromisoen sustapena nola indartu ere pentsatu behar da, parte-hartze esanguratsua lortzeko, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki. Denok gaude ados hori indartu beharrez, baina, seguru asko, fase hori berriz etorriko da bat hauteskunde-aldiarekin (zailagoa izango da hedabideetan egotea, kargu politikoei parte hartzea, etab.). Azkenik, zalantza batzuk daude ea posible ote den indarrean dagoen alarma-egoerarekin lotuta ez dagoen komunikazio-estrategia bat garatzea; zaila izango da Covid19a ez den zerbaitekin komunikazio-bide bat irekitzea.

- **Epeak**
 - Plan berriari begira diseinu-epeak eta parte-hartzean izan dezakeen eragina mantentzeko kezka agertu da. Ildo horretan, nabarmendu da sozietate zibileko erakunde asko (hirugarren sektoreari lotutakoak, adibidez) krisi sozial eta sanitario horren larrialdiei ari direla erantzuten, eta udaren osterako ari direla uzten beste prozesu batzuk; ondorioz, uda ostean agenda bilerez eta ekitaldiz gainezka egongo da. Idazkaritza Teknikoak erantzun du OGPK eskatutako txostenean zailtasun horiek nabarmenduko dituztela, baina epeak luzatzeko erabakiak tokiko erabaki-eremua gainditzen duela. OGPren balioak balia litezke plana ziurgabetasuna kudeatzeko tresna bat dela komunikatzeko, eta lagundu eta egin nahi duen gizarteari aukera bat emateko.
- **Erakundeen lehentasunetan izango den eragina**
 - Hauteskundeek erakundeen ordezkartzan izango duten eraginaz harago, azaldu dute osasun-alertarekin batera krisi sozial eta ekonomikoa dagoela. Ondorioak aurreikustea zaila da, baina eragin ikaragarria izango dute, ez bakarrik gizarte-sarean, baita aurrekontuetan ere. Horren ondorioz gerta daiteke, plan berriari dagokionez, gobernu irekiak garrantzi gutxiago izatea erakundeen agendetan. Erantzun dute OGPn proposatuko duten dokumentuan garrantzitsua dela hirugarren sektoreak Euskadin duen rola nabarmentzea (premiazko arreta eta epe ertainerako eragin ekonomikoa), bai eta horrek beste ekimen batzuekin lankidetzan aritzeko gaitasunean (esaterako, OGP planarekin) izango duen eragina ere. Funtsezkoa da, ez hainbeste epeei dagokienez, baizik eta konpromisoen irismenari dagokionez.

OGPra bidaliko den dokumentuan Foro Erregularrean eztabaidatu diren gaiak jasoko dira.

ERANSKINA – OGP EUSKADI 2018-2020 PLANAREN AURRERAPENAK. Atzera begiratu bultzatzen jarraitzeko (*aldeztatik bidali da dokumentu hori Foro Erregularrean*)

Duela bi urte hasi ginen elkarrekin Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzarekin (OGP) lankidetzan gobernu irekiagoak egiteko konpromisoa hartzeko abenturan.

LORTU DUGUNA

- Erakundearteko lanari lotuta itxaropen positiboak sortzea biztanleriaren sektore jakin batean, euskal gobernuak (autonomia-, foru- eta toki-gobernuak) irekitzeagatik
- Arreta jarri eta parte hartu nahi duten herritarren sare bat eratzea (antolatua eta aditua, batez ere)
- Herritarrek parte hartze onargarria izatea foro irekietan
- Baterako proiektuetan laguntzen diren erakundearteko talde teknikoaren sare bat eratzea (open data, adibidez)
- Herritarren ordezkartza duten taldeekin 5 konpromiso aktibatzea, eta konpromiso horien garapenean aurrera egitea
- Beste udal batzuen interesa sustatzea, proiektu pilotuetan parte hartzeko, eredu kontzeptualizatuak baliozkotzeko (kontuak emateko proiektu pilotuak, open eskola, ilaba...)
- IRMk «nagusi» gisa egindako 2018-2020 ekintza-planaren baterako diseinuaren ebaluazioa egitea

HOBETU DAITEZKEEN ALDERDIAK

- Biztanleengan komunikazio-eragin handiagoa izatea (zabalkundea hobe daiteke). Nahiz eta orain OGP Euskadiren azalpen-bideoak eta 5 konpromisoak zabaltzen ari garen.
 - 8 erakunde sustatzaileetako arduradunen bideoa <https://www.youtube.com/watch?v=KmbpZiQImvA>
 - OGP Euskadiren bideo orokorra <https://www.ogp.euskadi.eus/inicio/>.
 - OGP Euskadiren bideo orokorra (ingelesez) <https://www.ogp.euskadi.eus/que-es-ogp/-/alianza-para-el-gobierno-abierto/>
 - 1. konpromisoa <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/kontuak-ematea-agintaldiko-planen-bidez/>
 - 2. konpromisoa <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/open-data-euskadi-eta-linked-open-data/> (2 bideo)
 - 3. konpromisoa <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/herritarren-parte-hartzearen-ilab-a-euskadin/> (2 bideo)
 - 4. konpromisoa <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/open-eskola-herritarrentzat-irekitako-eskola/> (bideo 1, beste bideo bat oraindik ez da argitaratu)
 - 5. konpromisoa <https://www.ogp.euskadi.eus/ogp-konpromisoak/-/integritatearen-euskal-sistema/> (bideo 1, beste bideo bat oraindik ez da argitaratu)
- Konpromisoak betetzean oso zentratuta egon garenez, agian, ez ditugu aintzat hartu prozesuaren ebaluazioaren alderdi batzuk eta beharko ditugun emaitzak (parte hartzeko oztopoak dituzten kolektiboan aniztasunaren ikuspegia, proiektu pilotuen ebaluazioak, prozesuetan parte hartzen dutenen gogobetetasun-galdetegiak, konpromiso-taldea).
- Konpromiso-taldeen, proiektu pilotuen eta foro irekien aurrez aurreko topaketa guztiak geldiarazi ditu alarma-egoerak.

AURREAN DITUGUN ERRONKAK

- 5 konpromisoen ondorioak ateratzea epearen barruan eta planean agindutako produktuekin
 - **1. konpromisoa** (planean jasotzen diren zedarrak)
 - Agintaldiko planen edukiak, edozein erakunde-mailatarako neurketa-adierazleekin... Egina
 - Elementu grafiko interaktiboetan oinarritutako plataforma berrerabilgarriaren alderdi funtzionala. Egina
 - Ikuskaritza soziala bermatzeko gakoak, kolektiboan aniztasuna kontuan hartuta (aldizkako komunikazio-produktuak). Aribidean
 - Proiektu pilotuak gauzatzea eta ebaluatzea. Aribidean
 - **2. konpromisoa** (planean jasotzen diren zedarrak)
 - Erakundearteko lantaldea. Egina
 - Herritarrek gehien eskatzen dituzten datu-multzoak. Egina

- Herritarren eskariari lotutako datu ireki normalizatuak argitaratzea. Nahiko aurreratuta
 - Erakunde arteko zerbitzuak sortzea, elkarri lotutako datuekin. Aribidean, baina hasi berri dago.
- **3. konpromisoa** (planean jasotzen diren zedarriak)
 - Herritarren partaidetza berritzeko llab-a sortzea, foro informal gisa eta jardunbide egokiak sortzeko. Kontzeptualizazioa eta gobernantza-eredua egin dira, formalizatzeko zain.
 - Jardun berritzaileen mapaketa. Egina
 - 4 pilotu, nola edo zertan jardun berritzeko.
 - Aurrekontu parte-hartzaileak. Nahiko aurreratuta
 - Osasuna eta parte hartzeko prozesuak. Aurreratuta (arazoa: aurrez aurreko jarduera guztiarekin eta, bereziki, Hernaniko azpipilotuarekin).
 - THINKING FADURA. Hasiera-fasean.
 - ERREKALDE PILOTUA, IMMIGRAZIO KANALA, ia ez da hasi, eta arazoak daude aurrez aurreko jarduerak egin behar baitira.
 - Eraitzen eta pilotuen eraginen ebaluazio partaidetua. ADIMEN-I KONTRATATUA eta eredu prestatzen.
 - TEKLAki KONTRATATUtako partaidetzako berrikuntza transferitzeko orientabideak (zabalkundea eta ikusgarritasuna —sariak—), eta pilotuen produktuak transferitzea.
 - **4. konpromisoa** (planean jasotzen diren zedarriak)
 - Jardun berritzaileen mapaketa. Egina
 - Open Eskola eredu garatu eta diseinatzea. Egina
 - Open Eskola (pilotuak) ezartzea. Aribidean
 - Ebaluazio partaidetua. Hasi gabe.
 - Edua doitzea eta hura orokortzeko gida, eskuliburu eta orientazioak garatzea Hasi gabe.
 - **5. konpromisoa** (planean jasotzen diren zedarriak)
 - Jardun berritzaileen mapaketa. Egina
 - Herritarrekin kontratatutako integritatearen euskal eredu definitzea Egina
 - Euskadin integritatearen kontrol eta jarraipenerako sistema bat diseinatzea. Egina
 - Integritateari eta etika publikoari buruzko hezkuntza- eta prestakuntza-eredu progresibo bat diseinatzea. Abian
 - Edua pilotu bidez kontratatzea eta ebaluatzea. Hasi gabe
 - 2018-2020 Plana gauzatzeko prozesuaren autoebaluazioa.
 - **NEURTU BEHARREKO ADIERAZLEAK**
 - Zedarriak gauzatu.
 - Partaidetzarekin egindako lan-saioen kopurua.
 - Bizitza publikoan parte hartzeko oztupoak dituzten taldeen partaidetza-maila.

- Konpromiso-taldeko partaideen gogobetetze-mailak.
 - Foro Erregularrak egindako prozesuekin eta amaierako produktuekin duen gogobetetze-maila
 - Herritarrek parte hartu duten prozesuekin edo ereduarekin duten gogobetetze-maila.
- **PLANAREN GAUZATZEAREN GAINEKO EBALUAZIOA EGITEKO KONTRATATU DEN ENPRESA: ADIMEN**

Kontratu honen xedea da, besteak beste, 3. konpromisoa ebaluatzea eta Thinking Faturako pilotuari aholkua ematea, ebaluazioan aditua den edukiarekin.

- OGP Euskadiren 2018-2020 Ekintza Planaren gauzatzearen gaineko autoebaluazioa,
 - a. Gauzatzean jarraitu den prozesuari buruz. Ez da sartuko planaren diseinuaren ebaluazioa, IRMk jada ebaluatu duelako, Aliantzaren ebaluazio-organo independentea bera. Ebaluazio partaidetuan oinarrituta egingo da, hau da, parte-hartzaileek foroetan (talde sustatzailea, foro erregularra, foro irekia eta konpromiso bakoitzeko taldeak) egiten duten balorazioa kontuan hartuta. Haei buruzko balorazioa izango da:
 - i. Bakoitzaren eginkizunak bete diren.
 - ii. 5 konpromisoetako bakoitza gauzatzeko prozesuari buruzko balorazioa:
 - 1. Gardentasun-maila, kontuak ematea, herritarren parte-hartzea eta gardentasunerako eta kontuak emateko teknologien erabilera.
 - 2. Gauzatze-maila: hasi
gabea/mugatua/funtsezkoa/oso.
 - b. 5 konpromisoetan lortu diren emaitzei buruz
 - i. Lortutako produktuak.
 - 1. Horien kalitatearen eta berrikuntzaren balorazioa.
 - 2. Gobernuak irekitzeko egiten duten ekarpena baloratzea (okerrera egiten laguntzen dute/ez da aldatuko/marjinala/nabarmena/bikaina).
 - ii. Beste emaitzak batzuk: lankidetzeta-sareak sortu, ikasi...
 - c. Foro Irekian aurkeztuko da ekainean edo uztailan, kontrastatzeko eta ekarpenak egiteko, bai eta gomendioak egiteko ere.
- Epe ertainera izango den eraginaren ebaluazioa:
 - Garatutako ereduaren ezarpen-maila

- Sortutako produktuen erabilera-maila (agintaldi-planen tresna, datu irekiak dituzten zerbitzuak eta datu irekien berrerabilera, ilab-aren partaidetza-maila eta sortutako eta erabilitako produktu berritzaileak, Open Eskola ereduaren ezarpen-maila eta haren jarduera eta integritate-sistema Euskadin).
- OGPko beste kide batzuei transferentziak egiteko lankidetzak (gure produktuekiko dagoen interesa).

BEREHALA EGIN BEHARREKO JARDUKETAK

1. **Konpromisoak uztailean amaitzea**, doikuntzekin, ekintzak ezin izan direlako aurrez aurre gauzatu. EZ dakigu 2018-2020 Planaren amaiera-data (2020ko abuzturako aurreikusia) aldatuko den.
2. Ereduen, pilotuen eta autoebaluazio-prozesuaren **azken kontrastea egiteko** foro irekiak **uztailean bateratzea**, askotariko deialdiak saihesteko.
3. **Ebaluazio partaidetua** egiteko prozesuaren/emaitzaren adierazleak lortu direla agerian uzteko informazioa biltzea.
4. **2018-2020 Planarekin lortutako prozesua eta produktuak zabaltzea**, uztailean eta irailean.
5. **Plan berria abian jartzea**. OGPren orientazioei jarraikiz, nahitaezkoa da plana elkarrekin diseinatzea. Administrazioak proposamenak egin eta herritarrek haien artean aukeratzea ez da aski. Mota honetako prozesu batean pentsatu beharko litzateke, adibidez:
 - a. **Abiaraztea eta proposamenen bidez laguntzeko deia (maiatza/ekaina)**
 - i. OGPren webgunean eta erakundeen webguneetan, zerbait sinplea baina oso ondo bideratua, foro irekiak deitzeko dauzkagun helbide elektronikoetara bidalita.
 - ii. Informazio gakoa jasotzen duen formulario txikia, proposamen desbideraturik ager ez dadin, esaterako, "pentsioak konpondu" eta antzekoak, ez baitira bideragarriak.
 1. Euskal erakundeek lankidetzan garatu ditzaketen zerbitzuak, politikak edo jarduerak, gardenagoak, partaideagoak eta lankidetzazkoagoak izan daitezten.
 2. Bakoitzaren eskumenen barruan sartzen direnak.
 3. Bi-lau urteko epean egin daitezkeenak.
 4. etab.
 - iii. Era honetako edukiak:
 1. Euskal erakundeek lankidetzan garatu dezaketen jarduera, gardenagoak eta parte-hartzaileagoak izan daitezten ematen dituzten zerbitzuetan edo sustatzen dituzten politiketan.
 2. Zer beharizan edo arazo konpondu nahi den.
 3. Zer erakundek parte hartu beharko luketen.
 4. Zer agente herritarrek parte hartzea komeniko litzatekeen.
 5. Zer emaitza lortu beharko litzateke amaieran?
 6. Zer zailtasun-maila egon litekeen: oso altua, altua, ertaina, baxua, edo oso baxua.
 7. Zer eragin-maila izango lukeen: oso altua, altua, ertaina, baxua, edo oso baxua.

8. Proposamena egin duen agente-mota: herritarra; erakunde herritarra; enpresa: unibertsitatea; administrazio publikoa; beste batzuk.
 - iv. Dei hau ez litzaieke herritarrei soilik egingo; aitzitik, erakunde sustatzaileek (8ok) konpromisoa hartuko genuke, esate baterako, 2 proposamen egiteko informazio-maila berarekin, eta, ondoren, proposamenen base komunean jasoko genuke dena.
- b. Panel edo talde herritarrak/instituzionalak eta adituak, proposamenak hautatzeko honako irizpide hauen arabera (uztaila/iraila??)**
 - i. Beharrezana (zein hutsune edo eskariri erantzun nahi zaion).
 - ii. Aukera (martxan dauden beste ekimen batzuekiko lotura).
 - iii. Bideragarritasuna (hura zuzentzeko interes instituzionala barne). Zailtasuna eraginaren adierazle izan daiteke.
 - iv. Ematen duen balioaren azterketa (espero diren eraginak eta produktuak).
- c. Datuak egiaztatu eta kontuak emateko prozesua, modu irekian, behin betiko proposamenak hautatzeko (iraila) FORO IREKIAN (publizitatearekin...).**
- d. Plana idaztea (urria, azaroa) Bertsioak euskaraz eta ingelesez. Herritarren bertsio bakarra (ez zaildu dokumentua).**